

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 21/2020 Foru Araua, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urriaren 28an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

21/2020 Foru Araua, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolari buruz

#### ZIOEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak, honako hau xedatzen du 10.36 artikuluan: "Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du turismo eta kirol gaietan. Aisia eta atsedena."

Halaber, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Elkarte Osorako Erakundeek eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeek arteko harremanei buruzkoak, Lurralde Historikoen garapen eta egikaritze eskumenez diharduela, hauxe jasotzen du 7.b) 6 artikuluan: "Kirola sustatzea. Eskola kirolaren eta guztiontzako kirol programak". Jarraian, 8.2 artikuluan, legeak ezartzen du lurralde historikoei badagozkien arauak garatzeko eta betearazteko gaietan, erakunde erkideek emandako arauak garatzeko ahalmena dutela.

Eskumen banaketa horretan oinarrituta, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, banaketa hori osatu zuen, eta erakunde erkideei esleitu zien, besteak beste, 4.2.d) artikuluan, eskola kirolaren oinarri eta printzipio orokorrak, kirol diziplinaren araubidea eta lehiaketak arautzeko eskumena, eta lurralde historikoetako foru erakundeek, berriz, Autonomia Erkidegoko araudia garatzeko eta betearazteko eskumena eskola kirolaren arloan (5.a artikulua).

Horrela, banaketa hori errespetatuz, Eusko Jaurlaritzak Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua onartu zuen eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskola kirolaren eredia hedatzeko funtsezko edo oinarritzeko antolamendua ezarri zuen, baina foru organoen araugintza eskumena errespetatuz. Hala, foru organoek egokitzat jotzen dituzten arauketak sar ditzakete, arlo horretako foru interesak kontuan hartuta.

Azkenik, 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoen Antolaketa Instituzionalari buruzkoak, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Batzar Nagusiei dagokie Autonomia Erkidegoko edo Estatuko legeria garatzeko xedapenak onartzeko arauak garatzeko ahalmena, betiere ahalmen hori berariaz Arabako Foru Aldundiari esleitu ez bazaio.

Aurreko guztia kontuan hartuta, argi dago lurralde historikoetako foru organoek eskumena dutela eskola kirolaren arloan euskal erkidegoko legeria garatzeko, foru berezitasuna jagoteko xedez.

Beste alde batetik, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 25.3 artikuluan ezartzen duenez, euskal herri administrazioen betebeharren artean dago "neurri egokiak hartzea emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko kirol modalitate guztietan"; hala berean, Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen printzipioetako bat hauxe da: "Emakumea kirol guztietan eta maila guztietan txerutzen lagunduko duten baldintzak sustatzea" (2.3.ñ artikulua).

Azkenik, aurreko bi arauekin bat etorritik, uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, Eskola Kirolari buruzkoak, eskola kirolaren arloan eskumenak dituzten botere publikoek esleitzen die

emakumeen kirola sustatzeko eta kirol diziplinak emakumeei benetan irekitzen laguntzeko ahalmena, eskola garaian programa espezifikoa garatuz.

Goian adierazitako manuak ikusita eta egun dauden beharrak kontuan harturik, Foru Arau honek, bere lehenengo tituluan eskola kirolari aplikatu dakizkiokeen xedapen orokorrak jasotzeaz gain, helburu behinenetako bat kirola berdintasun baldintzetan egitea delarik, bigarren tituluan Arabako berezitasunak jasotzen ditu eskola kiroleko programa eta lehiaketetan, Arabako Lurralde Historikoko kirol egoerari erreparaturik.

Eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak ahalbideturik –lurralde historikoetako organo eskudunek eskola kirolari lotutako ikasturteko programak egingo dituztela xedatzen du horrek– honako foru arau honen III. tituluak Arabako Foru Aldundia ahalduz du programa horietan jasota ez dauden jarduerak baimentzeko prozedurak arautu ditzen, kirol diziplina bakoitzaren errealitatea aztertuz, salbuespen gisa horietan jarduteko baimena ematerakoan.

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, 2.3 artikuluan adierazten duenez, botere publikoek, zeinek bere eskumenen esparruan, kirola egiteko eskubidea behar bezala gauzatzen dela bermatuko dute, kirol federazioen parte hartzearen eskutik, besteak beste, goi mailako kirolaren antolamenduan eta sustapenean oinarritutako kirol politika baten bidez; bestetik, aipatutako Euskadiko Kirolaren Legearen 5.f artikulua ezartzen du lurralde historikoetako foru organoei dagokiela, zeini bere lurralde eremuan, etorkizuneko kirolariei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Ildo horretan, Arabako Foru Aldundia ahalduz du foru arau honen IV. tituluak etorkizuneko kirolarientzako programak gara ditzan.

Eskola kirolaren arloan indarrean dagoen araudiaren ez-betetzeak saihesten eta/edo zuzentzen ahalegintzeko helburuz eta, betiere, indarrean dauden arauak eta akordioak betetzea xede duten kirolaren balioen sustapenari begira, foru arau honen V. tituluak Arabako Foru Aldundia ahalduz du erkidegoko araudiak ikuskapenaren arloan esleitzen dizkion eskumenak baliatzeko.

Foru Arauaren azken zatian, eskola kiroleko programetan jasotako kirol jardueretan parte hartzen dutenentzako nahitaezko aseguruaren harpidetzari buruzko gaiak jasotzen dira era laburrean, araugintzako gaikuntzari eta indarrean jartzeari buruzko ohiko xedapenak ageri direla amaieran.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, eta uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, emandako eskumenekin bat etorriz, honako foru arau honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan eskola kirolaren arloan dagoen legezko eta erregelamenduzko arauak Arabako Lurralde Historikoan garatzea.

### 2. artikulua. Eskumena

Kirol alorrean eskumenak dituen Arabako Foru Aldundiaren Sailak Arabako Lurralde Historikoko eskumenen alorrean eskola kirola ikuskatzeko zereginak egikaritzeko ditu, eta horretarako, aplikatu beharreko legezko xedapenak eta arauak betetzen direla kontrolatuko du.

### 3. artikulua. Eskola kirolaren esanahia

1. Foru arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eskola kiroltzat hartuko da derrigorrezko eskolatze aldiaren eskolaz kanpoko orduetan ikasleek egiten duten kirol jardueren antolatua.

2. Eskola kirolari atxikitako jarduerak prestakuntza izaera izan behar dute, eta ikasleen hezkuntza integralaren barruan txertatu behar dira, hezkuntza sistemaren eta, oro har, sistema horren ziklo etapan eta, bereziki, gorputz hezkuntzaren arloaren helburu orokorrekin bat etorri.

3. Prestakuntza izaera horren ondorioz, eskola kirolaren eskaintza antolatzen parte hartzen duten kirolaren euskal sistemako egitura edo eragileek sei eta hamasei urte bitarteko hurrek egiten dituzten mugimendu jarduerak, fisikoak eta/edo kirol jarduerak sustatu behar dituzte.

#### **4. artikulua. Eskola kirolaren funtzioak eta helburuak**

1. Eskola kirola, ahal dela, kirol anitzekoa izango da, eta ez lehiaketara bakarrik bideratua. Horrela, ikasle guztiek hainbat kirol modalitate ezagutu eta garatuko dituzte, nork bere borondate, gaitasun fisiko, jarrera eta adinaren arabera.

2. Eskola kirolak sustatu beharko du kirola nesken eta mutilen arteko berdintasun baldintzetan egin dadin, eta kirol diziplina guztiak neskei modu eraginkorrean eskaintzen lagunduko du, batez ere, mutilekin alderatuta, nesken parte hartzea esanguratsua ez den kasuetan.

3. Administrazio publikoak ikastetxearen hezkuntza proiektuetan eta ikastetxearen urteko planean txerta dadin sustatuko du. Administrazio publikoei dagokien sustapen lan hori garatzerakoan, eskola kirolaren garrantzia nabarmenduko da, hezkuntza prozesuaren osagai eta kirol ohitura egokiak eskuratzeko oinarritzko prozesua den aldetik, kirol modalitate guztien etorkizuna bermatzeko.

4. Eskola-kirolak euskararen, Euskal Herriko hizkuntza propioaren, erabilera sustatuko du eskola-umeen artean, euskararen normalizazioari eta sustapenari buruzko indarrean den araudian ezarrita denaren arabera.

5. Eskola-kirolak honako balio hauek sustatuko ditu: elkartasuna, konpromisoa, talde-lana, lagunartekotasuna, berdintasuna, biolentziarik eza, diskriminaziorik eza eta errespetua jatorri, arraza, nortasun edo sexu-orientazioaren dibertsitatearekiko. Horretarako, administrazio publikoak balio horiek jasotzen eta saritzen dituzten proiektu eta kompetizioak sustatuko ditu, eta ardura hartuko du balio horiek kontrako jarrera saihesteko.

6. Eskola-kirola praktikatzea pertsona guztien eskura egon behar da, bereziki beren egoera fisiko eta/edo mentalagatik zailtasun gehien dituztenentzat. Horretarako, sentsibilizazio-kanpainenak eta kirol irisgarri eta inklusiboa funtsezko osagai izango dira eskola-kirolean.

## **II. TITULUA**

### **ESKOLA KIROLAREN PROGRAMAK ETA LEHIAKETAK**

#### **5. artikulua. Araugintzako gaikuntza eta printzipio abiarazleak**

1. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak eskola kirolaren programak onartuko ditu urtero, eta programek honako helburu hauek izango dituzte: haurren eskolako heziketa integrala osatzea, haien nortasuna harmonian garatzea, baldintza fisikoak eta osasun baldintzak garatzea eta ondoko garaietan kirola era iraunkorrean egitea ahalbidetuko duen prestakuntza ematea.

2. Halaber, kirol arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak eskola kirolari lotutako jarduerak arautzen dituzten joko eta lehiaketa araudiak onartuko ditu, Eskola Kirolaren Euskal Batzordearen txostena jaso ondoren.

#### **6. artikulua. Antolaketa egitura**

1. Eskolako haurren kirol jarduera, funtsean, ikastetxeen bitartez egituratzen da, ikasleen gurasoen lankidetzeta eta ikastetxearen gorputz hezkuntzako mintegiaren parte hartzea baliatuz. Bidenabar, kirol fundazio, elkarte, federazio, kirol talde eta klubuen parte hartzea ere baimenduko da.

2. Funtsean, kirol federazioak izango dira eskola kirolaren inguruko lehiaketa programak antolatzeke eta gauzatzeko laguntza teknikoaz eta lankidetzaz arduratzen diren erakundeak, eta ezin izango diete federazio lizentziarik izapidetu edo eman eskola kirolaren programan izena emanda dauden ikasleei, Arabako Foru Aldundiak baimendutakoei izan ezik.

3. Toki entitateek, funtsean, programan lagunduko dute udalaren kirol ekipamenduak ikastetxeei eta Arabako kirol federazioei lagaz eskola kirolaren programa behar bezala gauza dadin, bereziki eskola kirolean aritzeko instalazio nahikorik ez dagoenean, partaideen kopurua handiegia delako edo kirolgune espezifikoak behar direlako.

4. Ikastetxeek, gainera, eskualdeko kirol klubekiko lankidetzaz bideratu ahal izango dute; hartara, neska-mutil txiki-txikiekin, kirol klubetako zerbitzu teknikoek parte har dezakete eskolako haurrak kirolaren hastapenetan gidatzeko orduan, ikastetxeak ezarritako hezkuntza helburuekin bat etorrira.

Era berean, ikastetxeek lagundu egin behar dute eskolako neska-mutilek kirol klubetan sartzeko aukera izan dezaten adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, bermea izan dadin hartara eskolaratze aldia amaitutakoan jarraipena izango duela kirolaren praktikak, dela kirol federatuan, dela jolaseko kirolean.

#### **7. artikulua. Berdintasuna eta bazterkeriarik eza**

1. Eskola-kirolak bermatu beharko du aukera-berdintasuna, integrazioa eta diskriminaziorik eza eskolako adinean dauden pertsona guztientzat, bereziki desgaitasunen bat edo hezkuntza-beharrizanen bat duten pertsonentzat.

2. Eskola kirolaren filosofia betetzearren, eskolako haurrak ezingo dira baztertu hautaketa prozesuak direla eta. Era berean, parte hartzen duen erakunde orok eskola kirolaren abiaburu hezitzaileak errespetatzeko konpromisoa hartu beharko du, bai eta instalazioetan, ordutegietan eta gainerako kirol baldintzetan berdintasuna bultzatzeko konpromisoa ere, hala nola baimen eta arrazoi berezietan dagokienez, eskola kirolaren kanpaina bakoitzean araututakoak betetzeko konpromisoa.

3. Berdintasunaren printzipioa bultzatze aldera, administrazio publikoak ardura hartu beharko du eta aldeztu beharko du behar beste baldintzeak ez dituzten ikasleek kirola praktikatzen ahal izateko, eskola-testuinguruko indize sozioekonomikoa eta soziokulturala kontuan izanik. Gainera, hurbiltasun-printzipioa sustatu beharko du, bultzatuz ikasle guztiek kirola etxetik hurbilen egitea.

#### **8. artikulua. Jardueraren lurralde eremua**

1. Uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, Eskola Kirolari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorriz, eskola kirolaren kategorietarako jarduerak honako lurralde eremu hauetan garatuko dira:

Aurrebenjaminak eta benjaminak: Tokiko/Eskualdeko eremua.

Kimuak: Lurralde historikoa.

Haurrak: Autonomia erkidegoa.

Kadeteak: Autonomia erkidegoz gaindikoa.

2. Aurrekoa gorabehera, kirol modalitatearen baten ezaugarriak direla eta, kirolaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak salbuespenez baimendu ahal izango du adierazitako eremuez gaindikoa jarduerak antolatzea edo horietan parte hartzea, Eskola Kirolaren Euskal Batzordearen txostena jaso ondoren. Baimen horiek ez diete kalterik egingo euskal federazioek eta Eusko Jaurlaritzak selekzio autonomikoen arloan dituzten eskumenei.

**9. artikulua. Kirol ibilbideak**

1. Eskola kirolaren programek, gehienez ere, hiru kirol ibilbide izango dituzte:

Kirol partaidetzako ibilbidea.

Kirol partaidetzako ibilbidearen helburu nagusia da eskola neska-mutilek hala nahi badute, kirola eta gorputz ariketa egin dezaten, era bateko eta besteko kirol modalitateak ezagut ditzaten eta kirola egiteko ohitura eta bizimodu osasungarria har ditzaten.

Errendimendu hastapeneko ibilbidea.

Ibilbide horren helburua dugu errendimendua xede duen eta kirol helburuak gainditzera bideratutako kirol jarduera bat egiten has daitezen erraztea hala nahi duten ikasleei, ezartzen den gehieneko partaidetza aintzat hartuta.

Talentuak eta etorkizuneko kirolariak antzemateko ibilbidea.

Ibilbide horren helburua hauxe izango da: neska-mutilen jarrerak eta gaitasunak direla eta, talentu edo etorkizuneko kirolari izateko baldintzak betetzen dituzten ikasleak antzematea, hautatzea eta garatzea.

2. Kirol ibilbideen barruan, honako jarduera mota hauek eskaini ahal izango dira:

Irakaskuntza jarduerak, hau da lehiaketetan parte hartzearekin lotuta ez dauden kirol modalitateak ezagutzea ahalbidetzen dutenak.

Lehiaketako jarduerak.

Antzemateko jarduerak.

Beste jarduera batzuk.

3. Eskola kirolaren kanpainak diseinatzerakoan eta, zehazki, horien barruan eskaintzen diren kirol ibilbideak eta jarduerak diseinatzerakoan, kirolaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak kontuan hartuko du Arabako Lurralde Historikoaren barruko kirol egoera.

**10. artikulua. Eskola kirolaren programen edukia eta betekizunak**

1. Eskola kirolaren programen iraupena ezin izango da urtebetetik gorakoa izan, eta eskola kirolaren kanpaina bakoitzean ezarriko dira deitutako programaren hasiera eta amaiera datak.

2. Erregelamendu bidez arautuko da eskola kirolaren kanpaina bakoitzean parte hartzen duten erakundeak inskribatzeko prozedura, bai eta kanpaina bakoitzeko programa gauzatzean egin beharreko joan-etorrietarako garraioa eskatzeko prozedura ere.

3. Eskola kirolaren kanpainetan egin beharreko jardueren garapenari estaldura teknikoa eman ahal izateko, erakunde laguntzaileen parte hartzea aurreikusitako ahal izango da eta, horretarako, kirol modalitate bakoitzeko lehiaketa araudiak egingo dira.

**11. artikulua. Publizitatea**

1. Eskola kirolaren programak ALHAOn argitaratuko dira.

2. Joko eta lehiaketa araudiak ahalik eta gehien zabaltzeko ahalegina egingo da; nolana ere den, Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko direla bermatuko da.

**III. TITULUA  
BAIMENAK ETA LIZENTZIAK****12. artikulua. Kirol ibilbideetan parte hartzeko gutxieneko adina**

1. Kirolaren parte hartzeko programei dagozkien lehiaketa aldatuetan edo partaidetza lehiaketetan parte hartzeko gutxieneko adina benjaminen lehenengo urteari dagokiona izango da.

Eta ibilbide horretako gainerako jardueretan parte hartzeko gutxienerako adina aurrebenjaminen lehen urteari dagokiona izango da.

2. Errendimendu hastapeneko ibilbidearen jardueretan parte hartzeko gutxienerako adina kimuen kategoriako lehenengo urteari dagokiona izango da antzemate jardueretarako, eta kimuen kategoriako bigarren urteari dagokiona gainerako jardueretarako.

3. Salbuespen gisa, aurreko bi ataletan aipatutako adina bete ez duten kirolariek parte hartzeko baimena eman ahal izango du kirolaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak, Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak aldeko txostena egin ondoren.

### **13. artikulua. Eskola kirolaren urteko programetan jasota ez dauden jarduerak baimentzea**

1. Ezin izango da eskola kirolari buruzko programetan jasotzen ez den kirol jarduerarik antolatu aurrebenjamin, benjamin, kimu eta haurren kategorietan.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kirol arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak eskola kirolaren programetan jasota ez dauden kirol jarduerak antolatzeko baimena eman dezake, betiere eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan ezarritako partaidetza egiturak, lehiaketan lurralde eremuak eta baimendu beharreko jardueretan parte hartzeko gutxienerako adinak errespetatuz.

3. Erregelamendu bidez arautuko dira eskola kirolari lotutako urteko programetan jasota ez dauden jarduerak baimentzeko prozedurak. Baimen horiek emateko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Arabako Lurralde Historikoan baimenaren xede den kirol modalitatearik ez egotea.

Arabako Lurralde Historikoan lehiaketarik edo jarduera nahikorik ez izatea baimendu beharreko kirol modalitateetan.

Kirol modalitate jakin batzuetan parte hartzea sustatzeko beharra.

### **14. artikulua. Eskola kirolaren lizentzia**

1. Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren programetan jasotako kirol lehiaketetan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da kirol arloko eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak emandako eskola kirolaren lizentzia eskuratzea.

2. Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du Arabako ikasleei lizentziak emateko beste lurralde historiko bateko erakunde batean parte har dezaten, bai eta Bizkaiko edo Gipuzkoako lurralde historikoko urteko programetan parte hartzeko ere.

3. Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailak baimena eman ahal izango die Arabako ikasleei lizentzia federatuak emateko.

## **IV. TITULUA GOI MAILAKO KIROLA**

### **15. artikulua. Definizioak**

1. Goi mailako kiroltzat hartzen da interes publikokoa den kirola, funtsezko alderdia baita Euskal Autonomia Erkidegoko kirol garapenean, oinarrizko kirola sustatzeko pizgarriagatik eta gorenko mailako kirol lehiaketa ofizialetan duen ordezkaritza eginkizunagatik.

2. Etorkizuneko kirolaritzat joko da lehiaketa maila handia lortu ez arren, hura lortzeko itxaropen garbia duena.

**16. artikulua. Laguntza programak**

1. Eusko Jaurlaritzak Arabako Lurralde Historikoan onartzen dituen goi mailako kirolarentzako laguntzei kalterik egin gabe, horiek osatuko dira kirol arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko Sailak onartutako etorkizuneko kirolari laguntzeko planekin.
2. Erregelamendu bidez arautuko dira Arabako Lurralde Historikoan etorkizuneko kirolari izateko prozedura eta baldintzak.
3. Zentro pribatuekiko hitzarmenak edo itunak egin ahal izango dira, arestian esandako etorkizuneko kirolarientzako laguntzen osotasuna ziurtatzeko, psikologiako, nutrizioko, fisioterapiako edo beharrezkotzat jotzen den beste edozein arlotako zerbitzuei erantzun ahal izateko.

**V. TITULUA  
ESKOLA KIROLAREN IKUSKAPENA****17. artikulua. Eragin eremua**

Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak, bere eskumenen esparruan, ikuskapen eginkizunak beteko ditu eskola kirolaren arloan, eta legezko eta erregelamenduzko xedapenak betetzen direla, eskola kirolaren esparruan parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztien eskubideak bermatzen direla eta betebeharrak betetzen direla zainduko du.

**18. artikulua. Ikuskaritzaren eginkizunak**

Hauexek dira Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kirolaren Ikuskaritzaren eginkizunak:

Eskola kirolaren alorrean legezko eta arauzko xedapenak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea eta kirolari aplikatutako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean indarrean dagoen araubidea betetzen dela zaintzea eta kontrolatzea.

Erabiltzaileek ustezko arau hausteei eta irregulartasunei buruz egindako erreklamazioak eta salaketak egiaztatzea aurreko atalean adierazitako arloari dagokionez, beste administrazio publikoek izan ditzaketen eskumenei kalterik egin gabe.

Arabako Foru Aldundiak eskola kirola sustatzeko emandako dirulaguntzak eta laguntzak jasotzeko datuak, hau da, diruzko zenbateko jakin bat jasotzeko kalkuluan erabili zirenak, egiaztatzea eta errealitatearekin bat datozela baieztatzea. Hori guztia beste organo batzuek gauzatu ditzaketen kontrolei kalterik egin gabe.

Eskola kirolaren alorrean bete ditzakeen beste eginkizun batzuk.

**19. artikulua. Ikuskapen jarduera**

1. Ikuskapen jardueraren helburua gertakariak egiaztatzea da, eta horretarako beharrezko informazioa eta datuak biltzen dira. Horrenbestez, ez da balio judiziorik eta/edo presuntziorik egingo.
2. Ikuskapen jarduera egingo dute kasu bakoitzean eskatzen den espezializazio teknikoaren bidez ikuskatzeko gaituta dauden pertsonak.
3. Erregelamendu bidez eta urteko plangintza bakoitzaren barruan, ikuskapen jarduera zein jardueratara bideratuko den zehaztuko da.

**20. artikulua. Eskola kirolaren ikuskapen jardueren urteko plangintza**

1. Eskola kirolaren ikuskaritza eginkizunak planifikazioaren bidez egikaritzea aginduko da urtero-urtero, planifikazio horretatik kanpo egin daitezkeen jarduketa espezifikoei kalterik egin gabe, bai ofizioz, salaketen ondorioz.

2. Urteko plangintzan, lortu beharreko helburuak, ikuskapenaren xedea, edukia eta iraupena zehaztuko dira, hau da, ikuskapenaren hasierako eguna, garapenaldiak eta ikuskapen jardueren bukaera.

## VI. TITULUA ASEGURUAK

### 21. artikulua. Aseguruak

Arabako Foru Aldundiak honako aseguru mota hauek egingo dizkie eskola kiroleko programetan jasotako kirol jarduera guztietako partaideei:

Osasun laguntza, beste titulu baten bidez laguntza jasotzeko eskubiderik ez dagoenean. Laguntza mota hori jaso ahal izateko, kirol jarduera hasi baino lehen eskatu beharko da harpidetza, eskaera justifikatu eta dokumentatuta.

Erantzukizun zibila.

Kalteordaina, galera anatomikoak edo funtzionalak gertatzen direnean, edo parte hartzailea hiltzen denean, aseguruari buruzko legeriak baimenduta.

2. Eskola kirolaren kanpainetako edozein kirol ibilbidetan parte hartzen dutenek aseguru poliza bat izango dute, aurreko lerroaldearen b) eta c) ataletan adierazitako estaldura bermatzeko.

3. Eskola kirolaren kanpainetan izena emanda dauden erakundeek nahitaez jakinarazi beharko dizkiete parte hartzen duten ikasleei eta, bereziki, haien legezko ordezkariari, ikasleek egiten duten kirolaren ezaugarri espezifikoak, eta bereziki aipatuko dituzte aseguruak estaltzen dituenak, parte hartzen duten erakundearen antolaketa ezaugarriak eta egiten duten kirol jarduera erabat ezagutzeko interesgarriak diren datu guztiak.

Azken Xedapenetatik Lehenengoa. Araugintzako gaikuntza.

1. Foru Arau honetan jasotako berariazko gaikuntzei kalterik egin gabe, kirolaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailaren titularrari ahalmena ematen zaio hura garatzeko eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

2. Arabako Foru Aldundiak Foru Araua ALHAOn argitaratzeaz geroztiko hurrengo ikasturtea hasi aurretik behar den garapen-araudia onetsiko du.

Azken Xedapenetatik Bigarrena. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru arau hau.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 28a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**